

Auzoetako mantenu planeko laugarren auzo bilera Izaskun-Bidebietan

Eguna: 2014ko urriaren 8a.

Lekua: Helduen Hezkuntza Zentroa.

Hasiera ordua: 19:00

Amaiera ordua: 20:30

Parte hartzaileak: 24 – 8 emakumezko eta 16 gizonezko -

Udal ordezkariak: Ibai Iriarte alkatea eta Garikoitz Lekuona parte hartze arduraduna eta Joxe Mari Otegi obra eta zerbitzuetako arduraduna.



Tolosako udalak 200.000 euro inbertituko ditu herriko lau auzotan (San Esteban, Iurre, Berazubi eta Izaskun), bertako bizilagunek zehaztutako hobekuntzak egiteko. Hala, bigarren bilera, Berazubi auzoari dagokiona, urriaren 8an egin da, arratsaldeko 19:00tan Helduen Hezkuntza Zentroan. Udal ordezkariak eta teknikoak auzoko 24 bizilagunekin bildu dira (8 emakume eta 16 gizon) dira, auzoan zein behar dituzten identifikatzeko eta ondoren, lehenetsunak markatzeko.

Saioaren hasieran, Udalaren asmoen berri emateaz gain, bileraren nondik norakoaren eta jarraitu beharreko metodologiaren berri eman da.

Auzotarren ekarpenei ezker 50 hobekuntza proposamen jaso dira. Guztiak 12 multzo nagusitan banatu daitezke gehienak:

1- Argiteria. Orokorrean argiteria hobetu. Eta zehazki Bidebieta 19ko fatxadan kokatuta dauden

argiteriak kendu Izaskun 10-11 atzekaldea argiztatu.

2- Parke estalia. Hurrek jolasteko gune estalia.

3- Markesina. Autobus geltokian markesina jartzea. Helduen Hezkuntza Zentroko alturan.

4- Garbiketarekin loturiko proposamenak. Garbiketa maizago egitea eta barandak garbitzea ere.

5- Kontenedoreak. Bidebietako maldan kokatutako zabor ontziak kentzea edo lekuz aldatzea, oso arriskutsua bai da errepidetik egin behar delako erabilpena.

6- Zabalarretako ur putzua kentzea

7- Iturria. Bizkai kaleko iturria ez omen dabil ongi.

8- Zuhaitzak kimatu orokorrean.

9- Bizikletak jartzeko bizikleteroak.

10- Bidebietako barandak txukundu, margotu edo garbitu.

11- Spuknikeko plaza inguruan dauden hainbat itxitura konpontzea. Bidebieta 18ko paretan itxitura bat beharrezkoa dela.

12- Aparkaleku gehiago.

13- Irisgarritasuna. Zuhaitz azpietako espaloi guztiak oso irristakorrek daude Izaskun aldean eta Bidebieta 1, 2 eta 3ko portaletarako irisgarritasuna ez dago bermatuta. Azterketa orokor bat egin beharra dago irisgarritasuna eta segurtasuna ikuspuntuetatik.

14- Besteak: Skate egiteko txapak, internet kable bidez, ludoteka eta Apatia arteko bidegorria.

Behin hobekuntza gutziak zerrendatu eta gero, parte hartzaileak beren ustez lehentasuna dutenak aukeratu dituzte. Leheneste horren ondorioz, Berazubi auzoan burutu beharreko hobekuntza lan prioritarioak honakoak dira:

1- Irisgarritasuna eta segurtasuna.

2- Haur parke estalia.

3- Markesina.

Gainontzeko proiektuei dagokionez, berehala erantzuteko moduakoak direnen kasuan, lehen bai lehen exekutatu dira.

Tolosan, 2014ko urriaren 8an.

Garikoitz Lekuona

Parte hartze arduraduna

